

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2018 Erabakia, urtarrilaren 30ekoa. Onartzea Araban ekimenak garatzeko eta enpresa berriak sortzeko laguntzen 2018ko ekitaldirako deialdia (Ekin Araban)

Enpresa berriak, bereziki izaera berritzailea dutenak, sortzea funtsezko ardatza da enplegua eta aberastasuna sortzeko. Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak ezinbesteko jotzen du ekintzaileen irudiaren aldeko kultura eta gizarte kultura aproposa eskaintzea, alegia, pertsona horiei enpresa sortzen ari direla, hots, ideia dutenetik proiektua abian jartzen duten arte, laguntzea eta hura gizarteratzeko orduan babestea. Horretarako, elkarlanean jardungo du beste administrazio publikoekin eta sistemako gainerako eragileekin batera edo haien osagarri.

Beraz, Arabako Foru Aldundiak, gure garapenean enpresak sortzeak dakarren garrantzia ezagututa, Erabaki honen bidez Arabako Lurralde Historikoa ekin eta enpresa berriak sortzeko laguntza deialdia (Emprender en Álava) arautzea aurreikusi du. Erabaki honen barruan, laguntzak emango dira jarduera dibertsifikatu nahi duten enpresa edo sustatzaile banakakoen proiektuetarako, bai eta Araban enpresa berriak ezartzeko eta merkaturatze fasean dauden enpresa proiektuak sendotzeko ere.

Azken urteetan, Euskadik RIS3 Espezializazio Adimenduen Estrategia definitu du, eta hiru lehentasun zehaztu ditu, honako hauekin lotuta: fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak. Estrategia horrekin bat etorritik, Arabako Foru Aldundiak aipatutako hiru lehentasunetan enpresa ehun berria sortzearen alde egingo du, eta, zehazki, zibersegurtasunean, energiaren pilaketan eta sendagaien garapenean, aprobetxatuz erreferentziazko zentroak daudela lurraldean, hala nola Euskadiko ZiberSegurtasun Zentroa, IKZ Energigune eta farmazia garapeneko poloa. Beraz, kontuan hartuko dira bereziki arlo horiei loturiko proiektuak.

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 36. zk., martxoaren 26koa) onartutako oinarri orokorrak eta geroago Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretuak (ALHAO, 23. zk., otsailaren 26koa) egin zien aldaketa kontuan hartuta, ahalik eta zabalkunderik handiena eskaintzeko eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak behar bezala betetzeko, beharrezkoa da laguntzen deialdia ezartzea, zeinari lotu behar baitzaizkio ekiteko eta enpresa berriak sortzeko ekimenak.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Araban ekimenak garatzeko eta enpresa berriak sortzeko laguntzen 2018ko ekitaldirako deialdi publikoa (Emprender en Alava), Erabaki honi erantsi zaiona, onartzea.

Bigarrena. Deialdia arautzeko kontuan hartu behar dira dirulaguntzak lehiaren araubidean emateko oinarri arautzaile orokorrak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutak (ALHAO, 36. zk., martxoaren 26koa), eta geroago egin zitzaizen aldaketa (Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretua (ALHAO, 23. zk., otsailaren 26koa), bai eta erabaki honen eranskinean xedatutakoa ere.

Hirugarrena. Aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak:

— Arabako Foru Aldundiaren 2018ko indarreko aurrekontu antolamenduaren “Araba ekinean-10601.0701.7700001” partidaren kontura (900.000,00 euro). Xedapen erreferentzia: 18.1.18. 105. 68/000.

— Arabako Foru Aldundiaren 2018ko indarreko aurrekontu antolamenduaren “Araba ekinean elkarreak-10601.0701.7810001” partidaren kontura (50.000,00 euro). Xedapen erreferentzia: 18.1.18. 105. 69/000.

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiak eragin egokia izan dadin, zenbateko gehigarri bat ezarri da, hain zuzen ere, gehieneko zenbatekoaren % 10, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzarenak, 21.2 xedatutakoarekin bat etorritz.

Laugarrena. Ebazpen honen bidez administrazio bidea amaituko da. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua arabera, berraztertze aukerako errekurtsioa aurkeztu ahalko da Diputatuaren Kontseiluan hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epea edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, jurisdikzio eskuduneari.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA**2018ko EKITALDIRAKO ARABAN EKITEKO ETA ENPRESAK SORTZEKO
LAGUNTZA DEIALDIA (EMPRENDER EN ÁLAVA)****1. artikulua. Helburua**

Deialdi honen helburua Araban enpresa berriak sortzea sustatzea da, norgehiagoka erregimeneko dirulaguntzak emanez Arabako ekoizpen egitura modernizatzen, dibertsifikatzen eta haren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten proiektuak egiten dituzten erakunde edo pertsona ekintzaileei.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbatekoa

Aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak:

– Arabako Foru Aldundiaren 2018ko indarreko aurrekontu antolamenduaren “Araba ekinean enpresak-10601.0701.7700001” partidaren kontura (900.000,00 euro).

– Arabako Foru Aldundiaren 2018ko indarreko aurrekontu antolamenduaren “Araba ekinean elkarteak-10601.0701.7810001” partidaren kontura (50.000,00 euro).

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiak eragin egokia izan dadin, zenbateko gehigarri bat ezarri da, hain zuzen ere, gehieneko zenbatekoaren % 10, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzarenak, 21.2 xedatutakoarekin bat etorritz.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Deialdi honetan jasotzen diren onurak eskuratu ditzakete:

a) Enpresa unitate berria sortzeko proiektua duten pertsona fisikoek. Dirulaguntza ordaindu aurretik, sozietatea eratu beharko du hark, sozietate edo zerga egoitza Araban izanda, edota lurralde historikoko udalerriri batean laguntza eskatu duen jarduerari dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon beharko du. Ez da enpresa berririk sortuko lehenago beste izen edo forma juridiko baten pean jarduera bera egiten bazuten.

b) Beren jarduera dibertsifikatu nahi duten Arabako erakundeek, enpresa unitate berri bat sortzeko proiektu zehatz bat aurkezten badute, eta proiektu horrek aurrekoak ez bezalako nor-tasan juridikoa badu.

c) Egoitza edo jarduera Arabatik kanpo izanda jarduera zentro bat lurraldera eraman edo bertan ezartzen duten erakundeek edo pertsona fisikoek.

d) Araban diharduen jarduera zentro bat duten erakundeek edo pertsona fisikoek, eskaera egiteko egunean jarduera hasi edo hura eratu zenetik gehienez bi urteko antzinatasuna badute eta irteera fasean badaude.

3.2. Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekikoetan, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hura frogatuzetik salbuetsita egon ezean, bai emateko ebazpenaren, bai dirulaguntza ordaintzeko unearen aurretik.

Erakunde onuradunak Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizazioarako kontu koderik esleituta ez badu, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.3. Enpresa proiektu berriak garatzen eta pertsona edo erakunde ekintzaileei laguntzen esperientzia duten erakunde publikoen nahiz pribatuen tutoretzaren pean egon daitezke proiektuak. Araudi honen ondorioetarako, irabazteko asmoa duten aholkularitza enpresek emandako aholkularitza ez da tutoretzat hartuko.

3.4. Ezin dira onuradun izan sozietate publikoak, ez eta erakunde administrazioarenak diren berezko nortasun juridikodun erakundeak ere.

3.5. Halaber, kanpoan geratzen dira ezarritako epearen barruan laguntza lerro honetako aurreko deialdietan diruz lagundutako jarduerak egin eta ordaindu izana frogatu ez duten erakunde eskatzaileak, Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren iritziz haiek ez egiteko arrazoiak behar beste argudiatu balira izan ezik.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak

4.1. Diruz lagundu ahal izango dira Arabako lurralde historikoan enpresak sortzeko edo jarduera zentroak jartzeko proiektuak garatzea helburu duten jarduerak, baldin eta lurraldearen gaurkotzea edo modernizazioa, dibertsifikatzea eta lehiakorrago bihurtzea badakarte.

4.2. Jarduera hauek ez dute laguntzarik jasoko:

- Ordezkaritza komertzial hutsak irekitzek.
- Lehengo enpresa harremanak haustearen ondorioz sortutako enpresa proiektuek, horiek auzi egoeran aurkitzen badira.
- Dauden enpresak eskuratzeak, haiek egiten zuten jarduera bera egiten jarraitzeko.
- Ekintzaileek frankizia eskubideak edo marka edo antzekoen lizentziak erostera bideratutakoek.

4.3. Dirulaguntza jaso dezakete 4.1. puntuan jasotako jarduerak kontratatzeko izandako gastuek, hala nola:

– Merkatu ikerketek eta proiektuaren bideragarritasunaren analisisiek. Haien barruan sartu ahalko dira merkatu prospekzioei lotutako ikerketak eta azoketara joatea, eta dokumentazioa eta argitalpenak lortzea.

– Proiektuari lotutako berariazko txostenek, ikerketek eta aholkularitza teknikoek.

– Merkaturatu ezin diren prototipoak diseinatu eta eraikitzeko gastuek, eraikuntzarako materialak barne.

– Patenteen, homologazioen, utilitate modeloen eta marka komertzialen eskabiderako, emakidarako eta erregistrarako hasierako gastuek, 10.000,00 euroko gehieneko mugaraino.

– Berariazko ikastaro teknikoak egiteak, guztira 350 ordu baino gutxiago irauten dutenak eta zuzeneko lotura dutenak jarduerarekin, betiere prestakuntza arautuan eskaintzen ez badira, 3.000,00 euroko gehieneko mugaraino.

– Dirulaguntza jaso dezakeen proiektuari lotutako komunikazio gastuek, 20.000,00 euroko gehieneko mugaraino. Haien artean publizitate kanpainak, azoketara erakusle joatea, web orrien diseinua, sare sozialen diseinua, katalogoen, kartelen, bisita txartelen eta abarren diseinua eta edizioa (inprimaketa kanpo).

– Oro har softwarea eta hardwarea, bai eta berariazko garapen edo aplikazio informatikoak erosteak. Tabletak izanez gero, ezin izango da bazkide sustatzaile bakoitzeko unitate bateko muga gainditu.

– Garapen teknologikoetan, plataforma teknologikoetan eta software garapenetan egiten diren jarduketak, 15.000,00 euroko gastutik aurrera, ibilgetutzat joko dira deialdi honetako 6.1 artikuluko muga ondorioetarako.

– Beste inbertsio batzuek, lurrak, eraikinak eta ibilgailuak izan ezik. Ibilgetu materiala leasing bidez eskuratzen bada, interesik, gasturik eta BEZik gabeko kuotetarako emango da dirulaguntza.

4.4. Enpresa proiektua bideragarritasuna aztertzeko hasiera fasean dagoenean eta hark aurrera jarraitzea haren ondorioen mende dagoenean, gastu horiek baino ez dute dirulaguntza jasoko eta ez da beharrezkoa izango sozietatea eratzea edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea dirulaguntza ordaintzeko unean.

4.5. Ondorengo gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

– Erakunde kontratatzailearen eta kontratatuaren artean loturak daudenean izandako gastuek.

– Enpresa eratzekoek; besteak beste: notariotza gastuak, irekitzeko lizentziak, jarduera lizentziak, nahiz negozioa abiarazteko derrigorrezko beste tasa batzuk.

– Laguntza lerro honek edo aurrekoek diruz lagundutako beste batzuen antzeko edukia duten ikerketak egiteak.

– Ibilgailuak eta eraikinak errotulatzeko gastuek.

– Bidaiek, azoketara joateari lotuta egon ezean, eta txartelak aurkeztuz frogatzen badira.

– Otorduetarako gastuek.

– Material suntsikorrak erosteak, prototipoen eraikuntzarako ezarritakoaren kalterik gabe.

– Ohiko gastuek; besteak beste, alokairuak, argia eta telefonoa, aldizkarietarako harpidetzak, aseguruak eta bulegoko materiala.

– Telefono terminalak eskuratzeak, nahiz eta haien artean aplikazio informatikoak egon.

– Zerga, lan, kontabilitate, lege zein administrazio aholkularitzak.

– Enpresa edo lanbide elkarteetan parte hartzeko kuotek eta elkargokide egiteko gastuek.

– Web orrien erregistratze eta hostingari datxezkien gastuek, haiek sortzeari zuzenean lotuta izan ezean.

– Promozioko materiala (merchandisinga) erosteak eta banatzeak.

– Sustapen ekitaldien gastuek (lunch, bazkari, jai eta abarrekoak).

– Eraikitzeke eta instalazio lagungarrietarako (instalazio elektrikoa, girotzea, segurtasuna, etab.) proiektuek, bulegoak eta lokalak eraberritzeak eta apaintzeak.

– Kasuan kasu, erakunde tutoretako plantilletako teknikarien kostuak.

– Enpresaren beraren langileria kostuek.

– Balio erantsiaren gaineko zergak (BEZ) eta zeharkako gainerako zergek.

4.6. Baimenduta dago dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ehuneko 100eraino azpikontratatzea, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez.

4.7. Diruz lagundu daitekeen elementuko gastu txikiena 100,00 euro (BEZa aparte) izango da, bai aurrekontua onartzean bai fakturak justifikatzean.

5. artikulua. Proiektuak egiteko epea eta aplikazio eremua

5.1. Enpresa unitate edo jarduera zentro berriak sortzeko proiektuak Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dira.

5.2. Dirulaguntza jaso dezakete enpresa edo jarduera zentro berri bat sortzeko proiektuan, dirulaguntza eskaeraren ondoren eta 2018ko abenduaren 14a baino lehenago, izandako gastuek.

6. artikulua. Laguntzen zenbatekoa eta muga

6.1. Deialdi honetan jasotako laguntzak dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren ehuneko 50eko dirulaguntzen bidez gauzatuko dira, gehienez 30.000,00 euroraino proiektu bakoitzeko; haietatik, 15.000,00 euro gehienez egin behar diren ibilgetuen eskuraketetatik etorri ahalko dira.

Pertsona fisiko onuraduna emakumea bada, proiektuak % 5eko dirulaguntza gehigarria izango du. Laguntza gehigarri hori izango dute, halaber, proiektuaren sustatzailea talde bat bada eta talde horren, gutxienez, erdiak emakumeak badira.

Era berean, gehigarri hori (% 5) izango dute 20.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako lurralde historikoko udalerrietan garatutako proiektuek.

Erakunde onuradunak balorazioan 80 puntu edo gehiagoko kalifikazioa lortzen badu, muga hori 40.000,00 euroraino handituko da; haietatik, 20.000,00 euro gehienez egin behar diren ibilgetuen eskuraketetatik etorri ahalko dira.

6.2. Proiektua garatzeko izaten diren gastuak zenbait ekitalditan egiten badira, proiektu hori laguntza hauen ondorengo deialdietara aurkeztu ahalko da, eta arestiko puntuko mugak proiektu osoari aplikatuko zaizkio esleipenaren aurreko unean eta benetan ordaindutako dirulaguntza zenbatekoak kontuan hartuz.

6.3. Proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko dirulaguntzan onartu behar den zenbatekoak gutxienez 1.500,00 eurokoa izan beharko du.

7. artikulua. Jardunbidea bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio Batzordea honela egongo da eratuta:

- Presidentea: Ekonomia Garapenaren zuzendaria edo horrek eskuordetzen duen pertsona.
- Epaimahaikidea: Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren burua edo horrek eskuordetzen duen pertsona edo zuzendariak hautatutako pertsona.
- Idazkaria: Ekonomia Garapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau indarrean jartzen denean hasiko da eta 2018ko martxoaren 23ko 14:00ak arte bukatuko da.

8.2. Eskabideak Arabako Foru Aldundiaren erakunde webgunean <http://www.araba.eus/web/AyudasDesarrolloEconomico> eskuragarri dagoen ereduari egokitu beharko zaizkio. Halaber, eredu hori Ekonomia Garapenaren Zerbitzuan egongo da eskuragarri (Probintzia plaza 5., 1. solairua, 01001 Gasteiz).

8.3. Eskaera horiek, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://e-s.araba.eus>; horretarako, lehenago eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute. Egoitza elektronikora sartzeko bide desberdinak eta erakunde ziurtatzaile batek hizatutako ziurtagiri elektronikoa eskatzeko nora jo argitzeko informazioa Ezagutu egoitza – Nola sartu atalean aurkitzen da.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean ere aurkeztu ahalko dira (Probintzia plaza, 5, 01001 Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Ekonomia Garapenaren Zerbitzuari zuzenduta egongo dira (Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren Zuzendaritza), urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 16.4 artikuluan xedatutakoa ere kontuan hartuta.

Eskaera Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean paperean aurkezten duen erakundeak, eskaeraren gainerako informazio guztia emprenderenalava@araba.eus posta

elektronikora bidali beharko du. Horrako hori paperean (ofiziala) bidalitakoaren osagarri izango da; hau da, aurkezpen auzietarako, ez du baliorik.

8.4. Eskabidea egiteko unean aurkeztu behar den dokumentazioan eskabide eredu sartuko da, behar bezala osorik beteta, eta harekin batera baita dokumentazio hau ere:

a) Eskatzaileari buruz:

Pertsona fisikoa bada:

– NANaren fotokopia.

– Curriculum vitae.

– Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergako altaren fotokopia (jarduera ekonomikoren bat egiten badu) eta bere ziurtagiri historikoa.

Pertsona juridikoa bada:

– IFZaren fotokopia.

– Erakundearen memoria laburra eta kideen eta, kasuan kasu, proiektuko partaideen curriculum vitae.

– Eratzeko eskrituraren eta ondorengo aldaketa guztien fotokopia.

b) Enpresa edo jarduera zentroa sortzeko proiektuari buruz:

– Proiektuaren deskripzio txostena, deialdi honen 9. artikuluan xedatutako irizpideekin bat etorritz eskaera balioestea ahalbidetuko duena.

– Gutxienez 2 urteko aurreikuspen emaitzen kontuak.

– Lana egingo duen kanpoko profesionalaren edo enpresa hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proformako fakturak, kanpoko aurrekontua edo halakorik balego kontratu sinatua).

– Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, aurkeztutako izan beharreko kanpoko gasturen baten aurrekontua 18.000,00 euro edo gehiagokoa bada. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada eskaintzarik merkeena, aukeratu izanaren arrazoia.

– Enpresa proiektu berriak garatzeko eta pertsona ekintzaileei laguntzeko eremuan esperientzia duen erakunde tutoreak proiektu horri egiten dizkion jarraipen eta laguntza lan azalpena.

– Halakorik izanez gero, deialdi honetan aurkeztutako jarduera berak egiteko beste laguntza batzuen eskaerak/ebazpenak.

8.5. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabide eredu identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

8.6. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea izapideak egiten dituen organoak zuzenean eskuratu ahal izateko 3. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiriak, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak. Nolanahi ere, egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez daukaten erakundeek beraiek aurkeztu beharko dute Ogasunarekiko egoerari buruzko ziurtagiria.

9. artikulua. Proiektuak aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak

9.1. Aurkeztutako eskaerak baloratzeko jarraian adierazten diren irizpideak eta puntuazioak erabiliko dira eta, gutxienez, 50 puntu beharko dira proiektuak dirulaguntza jasotzen izan dezan:

– Talde sustatzailearen balorazioa (0-20 puntu). Proiektuaren sustatzaileen gaitasuna eta esperientzia eta haien inplikazio maila baloratuko dira.

– Proiektuaren tutoretza (0-10 puntu). Proiektuaren tutoretza deialdi honen 3.3 artikuluan deskribatutako erakunde publiko edo probatu batek egitea eta hark bertan duen inplikazio maila baloratuko dira.

– Enpresa ahalmena eta enpresa proiektuaren berrikuntza maila (0-30 puntu). Enpresa proiektuaren berritasuna, jatorritasuna eta bitxitasuna baloratuko dira, bai eta diru bideragarritasuna, handitzeko duen aukera eta enplegua sortzeko ahalmena ere. Era berean, negozio estrategia ere baloratuko da, hala nola, bezeroak, merkatua, lehiatzaileek, ekoizkinak, teknologia, eta abar. Gutxienez, 15 puntu lortu behar dira atal honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko.

– Inguruan duen eragina (0-30 puntu). Baloratu egingo da ekoizpen sarea zaharbertzeari, dibertsifikatzeari eta lehiakorrago bihurtzeari eta lurralde orekari egiten dien ekarpena, bai eta zenbateraino egiten duen bat Euskadiko espezializazio adimendun strategiarekin ere. Industria 4.0, Energia, Bio-osasuna.

– Eskaeraren zehaztasun maila eta edukia (0-10 puntu). Eskaeraren edukien argitasuna baloratuko da

10. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

10.1. Balorazio Batzordeak proposatuta, beharrezko ebazpenak emango ditu organo eskudunak. Ebazpen horiek, ahal dela, bide elektroniko bidez jakinaraziko dira, eta hala ezin bada, gutun ziurtatu bidez, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoarekin.

10.2. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke diputatuen kontseiluari erabakia jakinarazi ondorengo egunen hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Ordaintzeko betebeharraren eta dirulaguntzaren ordaintzaren onarpenerako justifikazioa

11.1. Onartutako dirulaguntzak ebazpenean nahiz ondorengo puntuetan xedatutako betekizuna eta baldintza guztiak bete ondoren likidatuko dira.

11.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartu ahal izateko, beharrezkoa izango da erakunde onuradunak 2018ko abenduaren 14ko 14:00ak arte iraungo duen epean ondoko dokumentu hauek aurkeztea:

– Egindako jarduera guztien azken memoria, hauek zehaztuz: zer mailatan lortu diren helburuak, asebetetze maila, jardueren kronologia eta diruz lagundutako kontzeptuetan izan diren desbideratzeak.

– Diruz lagundutako proiektuko gastuen eta diru sarreraren taula eta/edo finantzaketa taula.

– Fakturak eta froga balio bereko gainerako agiriak, jatorrizkoak zein fotokopia konpultsatuak. Beste herrialde batzuetako erakundeek egindako fakturak itzulita egongo dira, ingelesez egindakoak izan ezik.

– Eskaintza hirukoitza eta arrazoitzeko txostena hautatutako eskaintza ekonomikoki onena ez bada (izandako benetako gastua 18.000,00 euroko mugaraino iritsi edo hura gainditzen badu eta eskabidean jaso ez balitz).

– Halakorik izanez gero, jarduerak egiteko beste laguntza batzuen eskaerak/ebazpenak, alde aurretik aurkeztu ez direnak.

Kanpoko profesionalek emandako fakturen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

11.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordainduko du erakunde onuradunak Ekonomia Garapenaren Zerbitzuan eta 2019ko ekainaren 28ko 14:00ak arte amaituko den epean, izandako gastuen fakturen ordainagiriak formatu hauetakoren bat erabiliz aurkeztu ondoren:

- Jatorrizko banku ziurtagiria, ondoko datuak zehazten dituena: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren hartzailea, eta izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita.

- Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

- Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

- Libretetako edo kontu korranteetako mugimenduen kopia konpultsatua.

- Dirulaguntza jaso duen jarduera zehaztu eta hura izanik dagokion zenbatekoa ordaindu dela dakarten erosketa edo zerbitzu ordainagiriak edo tiketak; hura ezean, dirutan ordaindu bada, jatorrizko ziurtagiria emango da, sinatuta eta/edo fakturaren egilearen zigilua daramana, faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordaintzeko eguna zehaztuta.

11.4. Oro har, ordainketen frogagiriak jatorrizkoak izan beharko dira, baina fotokopia konpultsatuak ere aurkeztu ahal izango dira.

11.5. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epe mugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira eskatutako agiriak.

11.6. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztutako agirik guztiak badira, dirulaguntza zio horregatik murriztu edo baliogabe utziko da, dagokionaren arabera.

11.7. Ordainagiriak onartutako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokio kopurua baliogabe utziko da.

11.8. Ordaindu behar den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, hura onartzean bezala, 1.500,00 eurokoa da.

11.9. Dirulaguntza jaso duten jardueri eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinaraziko zaio Ekonomia Garapenaren Zerbitzuari, eta behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio berak. Hortaz, onartutako gastu osoaren mugarekin, aldaketak onartu ahalko dira hasieran dirulaguntza jasotako jardueretan eta haiei dagozkien zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez balitz ere.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute. Aldaketak funtsezkoak badira, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzak onartu beharko ditu.

11.10. Aurreko paragrafoetan nola dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko hala hura jasotzeko adierazitako agiriak, ahal dela, bide elektronikoz bidez aurkeztuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoz <https://e-s.araba.eus>.

Era berean, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean (Probintzia plaza, 5. 01001, Gasteiz) edo hitzartutako udaletako erregistro orokorretan ere aurkeztu ahal izango dira, bai eta

urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutako eran ere.

Nola dirulaguntza ordaintzeko betebeharrak onartzeko hala hura jasotzeko, eskaera Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean paperean aurkezten duen erakundeak justifikazio agiri horiek emprenderenalava@araba.eus posta elektronikora bidali beharko ditu gerora. Horako hori paperean (ofiziala) bidalitakoaren osagarri izango da; hau da, ez du aurkezpen egiaztagiri baliorik.

11.11. Erakunde onuradunek gastuen agiriak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak dirulaguntza jaso duten jarduerak egiaztatzeko.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuak (ALHAO, 36. zk., martxoaren 26koa, astelehena), izaera eta ematen dituen organoa edo administrazioa zein diren ere, oinarri orokorrak eta dirulaguntza jaso duten jarduerak jaso ditzaketen gainerako laguntzak onartzen dituenak, hamahirugarren oinarrian ezarritakoa aplikatu ez ezik, bateragarriak izango dira deialdi honetatik datozenetik, dirulaguntza jasotako gastuaren ehuneko 80raino iritsi arte.

Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzaz beste administrazio unitateek emandako beste laguntza oro izan ezik, zeinak bateraezinak izango baitira.

13. artikulua. Garapena

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro hartzeko. Halaber, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak subrogatu ahalko ditu, erakunde onuradunek euren forma juridikoa aldatzen badute eta erakunde berriaren helburuak eskabidean aurkeztutakoen antzekoak badira.

14. artikulua. Deslokalizazioa, ibilgetua besterentzea eta enpresa eskualdatzea

Enpresen deslokalizazioari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Aginduaren 43., 44., 45. eta 46. artikulua aplikatuko dira.

Eskualde Garapenerako Europar Funtsarekin (EGEF) batera finantzatutako zatirako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduak 71. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Dirulaguntza jasotzen duten ibilgetu eskuraketak ezingo dira Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzaren aurretiazko eta berariazko baimenik gabe eskualdatu dirulaguntza ordaintzen denetik urtebete igaro arte.

Bestalde, laguntza jasotzen duen enpresa unitate edo jarduera zentro berria ezingo da eskualdatu dirulaguntza ordaindu eta urtebete igaro arte lehenago Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzak berariaz onartu gabe.

15. artikulua. Baterako finantzaketa

15.1. Deialdi honetan jasotako laguntzak Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) ere finantzatzen du, ehuneko 50ean, 2014-2020 EHPOren esparruan.

15.2. Europar funts horri buruzko Europako araudia beteko dela bermatzeko, erakunde onuradunek gastuei loturiko egiaztagiria gorde beharko dituzte, gutxienez 2030 arte.

15.3. Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko irailaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115. artikuluko 2. zenbakian jasotako eragiketa zerrendan sartu ahalko dira.

15.4. Erakunde onuradunek aparteko kontabilitatea edo kontabilitate kode egokia eduki beharko dute EGEFek kofinantzatutako eragiketekin lotura daukaten transakzio guztien inguruan.

16. artikulua. Emandako laguntza onartzea

Laguntza ematearen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean erakunde onuradunak hari berariaz uko egiten ez badio emakida ebazpen honetan ezarritako baldintzetan onartu dela ulertuko da.

17. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko ekintzarik eginez gero, Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa eta EGEFek emandako aldi bereko finantzaketa aipatu beharko ditu zabalkunderako baliatutako bitarteko eta materialetan; horrela, bada, erakunde horiek irudi korporatiboa dela-eta ezarritako oharretara egokituko dira.

18. artikulua. Eskabideak egokitzea

Deialdi honetan araututako dirulaguntzei heltzerik ez duten aurkeztutako eskabideak, kasuan kasu, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzako kudeatutako beste laguntza lerro batzuetara eraman ahalko dira ofizioz.

19. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez eta ondoren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Dekretuak aurreko dekretuari egiten dion aldaketaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arau berria; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onartzen duena, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.